SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/05/16
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/16

# 2024KO MAIATZAREN 13ko EZOHIKO OSOKO BILKURA

# *SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 13 DE MAYO DE 2024*

Baztango Udaletxeko bilkura aretoan, 2024ko maiatzaren 13an, 08:30ean, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da, ezohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Jose Luis Retegi Iturbide, Lorea Lizarreta Insausti, Alaitz Arretxea Etxeberria eta Gorka Urtasun Saldias EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro BAZTANGO INDEPENDIENTEAK / INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoa; Anastasio Nagore Garralda UPN taldekoa; Lander Mattin Santamaria Alcocer GEROA BAI taldekoa.

Ez dira bertaratu: Joseba Moreno Videgain eta Andoni Irigoyen Maritorena

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

*En la sala de sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 08:30 horas del día 13 de mayo de 2024, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, José Luis Retegi Iturbide, Lorea Lizarreta Insausti, Alaitz Arretxea Etxeberria y Gorka Urtasun Saldias por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer, por el grupo GEROA BAI.*

*No asisten: Joseba Moreno Videgain y Andoni Irigoyen Maritorena*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

## 1.- 2024/06/09AN EGINEN DIREN EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO BAZTANGO HAUTESKUNDE-MAHAIETAKO LEHENDAKARIAK, KIDEAK ETA ORDEZKOAK IZENDATZEKO ZOZKETA.

Baztango Udalbatzari jakinarazi zitzaizkion Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak eta Iruñeko Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak bidalitako argibideak, 2024/06/09an eginen diren Europako Parlamenturako Hauteskundeetarako Baztango hauteskunde-mahaietako lehendakariak, kideak eta ordezkoak izendatzearen ingurukoak.

Ekainaren 18ko Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoak ezarritakoari jarraikiz, Baztango Udalerriko 12 hauteskunde-mahai bakoitzerako mahaikideak hautatzeko zozketa eta ondorengo izendapena egin da.

**Aho batez erabaki da**: 2024/06/09an eginen diren Europako Parlamenturako Hauteskundeetarako Baztango hauteskunde-mahaietako lehendakariak, kideak eta ordezkoak izendatzeko

## *1.- SORTEO PARA DESIGNACIÓN DE PRESIDENTES, VOCALES Y SUPLENTES DE LAS MESAS ELECTORALES DEL MUNICIPIO DE BAZTAN PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO, A CELEBRAR EL 09/06/2024.*

*Se pusieron en conocimiento de la Corporación las instrucciones remitidas por la Delegación del Gobierno en Navarra, así como por la Junta Electoral de Zona de Pamplona, en orden a la designación de presidentes, vocales y suplentes correspondientes a las mesas electorales del municipio de Baztan para las Elecciones al Parlamento Europeo a celebrar el 09/06/2024.*

*A tenor de lo dispuesto al efecto en la Ley Orgánica 5/1985, de 18 de junio, del Régimen Electoral General, realizado el sorteo y consiguiente designación de miembros de cada una de las 12 mesas electorales que hay en el Municipio del Valle de Baztan.*

***Se acuerda por unanimidad:** Darse por enterados del resultado del sorteo público realizado para designación de presidentes, vocales y suplentes correspondientes a las mesas electorales del municipio de Baztan para las*

egindako zozketa publikoaren emaitzaren jakitun gelditzea. Aipatutako datuak horretarako ireki den espedientean bildu dira eta honako bilkura honi dagokionarekin batera artxibatu da.

*Elecciones al Parlamento Europeo a celebrar el 09/06/2024, cuyos datos obran en el oportuno expediente incoado al efecto, que queda archivado con el de la presente sesión.*

**2.- 2024 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

2024/03/26ko Osoko Bilkuran 2024ko Plantilla Organikoari hasierako onespena eman zitzaion. Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024/04/08an eta jendaurrean egon zen bitartean 2 alegazio aurkeztu dira. Alegazioak espedienteari atxikirik daude.

Aurkeztu diren alegazioak azterturik eta udal idazkariak 2024/05/03an, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondotik, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua.

Ondoren, alegazioak bozkatu dira:

**Ana Larruy eta Elena Urtasun ordezkari sindikalak aurkeztutako alegazioa, S/Z: 1892/2024**:
Alde: 0
Aurka: 10 (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN, Geroa Bai)
Abstentzioa: 1 (Baztango Independienteak)
**Alegazioa ez da onartu**.

**Miren Elixabete Santesteban Iturralde: 2000/2024aurkeztutako alegazioa, S/Z: 2000/2024.**

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Harrituta daude nola segitu den aitzinet kirol teknikariaren plazarekin. Ez du balio Sumar eta Podemosen ministroak maiatzaren batean ateratzea sindikatuekin manifestatzera eta gero alde batera uztea langileak.

Alde:11
Aurka:0
Abstentzioa:0
**Alegazioa onartu egin da**.

***2.- PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2024. RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES PRESENTADAS Y APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE.***

*Con fecha 26/03/2024 el Pleno aprobó inicialmente la Plantilla Orgánica para 2024 del Ayuntamiento. Publicado el anuncio en el Boletín Oficial de Navarra de 08/04/2024, durante el período de exposición pública se han presentado 2 alegaciones adjuntas en el expediente.*

*Analizadas las alegaciones presentadas y explicado el informe del secretario municipal de fecha 03/05/2024, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

*A continuación, se votan las alegaciones:*

***Alegación presentada por Ana Larruy y Elena Urtasun representantes sindicales, E/R: E/R: 1892/2024.***
*A favor:0*
*En contra: 10 (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN, Geroa Bai)*
*Abstención: 1 (Baztango Independienteak/ Independientes de Baztan)*
***La alegación no se aprueba.***

***Alegación presentada por Miren Elixabete Santesteban Iturralde, E/R: 2000/2024.***

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak/ Independientes de Baztan:*** *Les extraña cómo se ha seguido adelante con la plaza de la técnica de deporte. No vale que los ministros de Sumar y Podemos se manifiesten junto con los sindicatos el día 1 de mayo y luego dejen de lado a los trabajadores y trabajadoras.*

*A favor:11*
*En contra: 0*
*Abstención:0*
***La alegación se aprueba.***

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/05/16
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/16

Era berean, udalbatzak aho batez erabaki du hasieran onetsitako plantillari dagokionez honako hau zuzentzea: garbigunea kudeatzeko ardura duen lanpostuaren izena aldatu eta garbiguneko arreta peoiaren izena jarriko da. Bestalde, 3.9 lanpostuari (zerbitzu anitzetako langilea) eskatzen zaion idatzizko hizkuntza-eskakizuna: B2/4. maila HEO da, eta ez C1/EGA/5. maila HEO.

Alkateak plantilla organikoa bozkatzera deitu du. Behin alegazioak bozkaturik, Udalbatzak legez behar den gehiengoarekin honakoa **erabaki du:**

1.- 2024ko plantilla organikoa **behin betiko onestea,** aurkeztutako alegazioa eta zuzenketak kontuan izanda.

2.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari ofizialean **argitaratzea.**

3.- Akordio hau interesatuei **helaraztea**, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*Asimismo, el pleno por unanimidad acuerda corregir lo siguiente respecto de la plantilla aprobada inicialmente, se modifica el nombre del puesto de responsable de la gestión del punto limpio, por el de peón de atención del punto limpio. Por otro lado, el perfil lingüístico escrito requerido al puesto 3.9 empleada/o de servicios múltiples, siendo éste de B2/4.º nivel EOI y no de C1/EGA/5.º nivel EOI.*

*El alcalde llama a votar la Plantilla Orgánica. Una vez votadas las alegaciones, el Pleno con la mayoría legal requerida* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar de forma definitiva*** *la plantilla orgánica de 2024, incorporando la alegación y correcciones aprobadas.*

*2.-* ***Publicar*** *el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*3.-* ***Trasladar*** *a los alegantes el acuerdo, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**3.- 2024 URTERAKO OHIKO AURREKONTU PROIEKTUA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

2024/03/26ko Osoko Bilkuran 2024ko Baztango Udalaren eta beren mendeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen aurrekontu arruntari eta dagozkion gauzatze-oinarriei, bai eta Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2024 ekitaldirako sarreren eta gastuen aurreikuspenei ere hasierako onespena eman zitzaion. Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024/04/08an eta jendaurrean egon zen bitartean alegazio bat aurkeztu da. Alegazioa espedienteari atxikirik dago.

Aurkeztu den alegazioa azterturik eta udal kontu-hartzaileak 2024/05/02an eta udal idazkariak 2024/05/03an egindako txostenak kontuan harturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondotik, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua.

Ondoren, alegazioa bozkatu da:

***3.- PRESUPUESTO ORDINARIO PARA EL EJERCICIO 2024. RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES PRESENTADAS Y APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE.***

*Con fecha 26/03/2024 el Pleno aprobó inicialmente el presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2024. Publicado el anuncio en el Boletín Oficial de Navarra de 08/04/2024, durante el período de exposición pública se ha presentado una alegación adjunta en el expediente.*

*Analizada la alegación presentada y explicado el informe de la interventora municipal de 02/05/2024 y del secretario municipal de fecha 03/05/2024, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

*A continuación, se votan la alegación:*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/05/16

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/16

**Miren Elixabete Santesteban Iturralde aurkeztutako alegazioa, S/Z: 2000/2024:**
Alde:11
Aurka:0
Abstentzioa:0
**Alegazioa onartu egin da**.

***Santesteban Iturralde, E/R: 2000/2024:***
*A favor:11*
*En contra: 0*
*Abstención:0*
***La alegación se aprueba.***

Alkateak Baztango Udalaren eta beren mendeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen aurrekontu arruntari eta dagozkion gauzatze-oinarriak bozkatzera deitu du. Behin alegazioa bozkaturik, Udalbatzak legez behar den gehiengoarekin **erabaki du:**
1.- Baztango Udalaren eta beren mendeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen aurrekontu arruntari eta dagozkion gauzatze-oinarriei, bai eta Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2024 ekitaldirako sarreren eta gastuen aurreikuspenei ere **behin betiko onestea,** aurkeztutako alegazioa kontuan izanda.
2.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari ofizialean **argitaratzea.**
3.- Akordio hau interesatuei **helaraztea**, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*El alcalde llama a votar el presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan. Una vez votada la alegación, el Pleno con la mayoría legal requerida* ***acuerda:***
*1.-* ***Aprobar de forma definitiva*** *el presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2024, incorporando la alegación aprobada.*
*2.-* ***Publicar*** *el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*
*3.-* ***Trasladar*** *a los interesados el acuerdo, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.- ELIZONDOKO FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE EGOITZA ERABERRITU, HOBETU ETA EGOKITZEKO (1. FASEA) CONSTRUCCIONES JOSÉ MIGUEL IBAÑEZ SLUREKIN SINATUTAKO OBRA-KONTRATUAREN ALDAKETA.**

***4.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE OBRA SUSCRITO CON CONSTRUCCIONES JOSÉ MIGUEL IBAÑEZ SLU PARA LA REFORMA, MEJORA Y ADAPTACIÓN DE LA RESIDENCIA FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE DE ELIZONDO (1ª FASE).***

2024ko apirileko datarekin obra-zuzendaritzak ELIZONDOKO FCO JOAQUIN IRIARTE EGOITZA ERABERRITZEA, HOBETZEA ETA EGOKITZEA (1. FASEA)ren obra-kontratuan egindako dokumentua ikusi da.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Uste du batzordean galdetu zela ea badagoen Iberdrolaren txostenik aldaketa egiteko. Horren berri galdetzen du.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Lino Plaza Arkitekturari eskatu zaio. Pentsatzen du zerbait igorriko dutela.

*Visto el documento realizado por la dirección de obra de abril de 2024 en el contrato de obras de REFORMA, MEJORA Y ADAPTACIÓN DE LA RESIDENCIA FCO JOAQUIN IRIARTE DE ELIZONDO (FASE 1), en el que se informa de la necesidad de modificar el citado contrato.*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak/ Independientes de Baztan:*** *Cree que en la comisión se preguntó si había un informe de Iberdrola para hacer el cambio. Pregunta sobre ello.*

***Fernando Anbustegi, alcalde:*** *Se ha pedido al estudio de arquitectura Lino Plaza. Piensa que algo enviarán.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/05/16

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/16

Dokumentu horretan, aipatutako kontratua aldatu behar dela jakinarazten da. Idazkariaren txostena kontuan hartuz eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearekin bat etorriz, Udalbatzak, aldeko 10 (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN, Geroa Bai) bozkekin eta abstentzio batekin (Baztango Independienteak) erabaki du:

1.- ELIZONDOKO FCO JOAQUIN IRIARTE EGOITZA ERABERRITZEA, HOBETZEA ETA EGOKITZEA (1. FASEA)ren obrak egiteko kontratua aldatzeko espedienteari hasiera ematea, 2024ko apirileko IBERDROLAk hartune elektrikoarendako proposatutako konexio-puntuaren ondoriozko proiektuaren aldaketa obra-zuzendaritzaren dokumentuan jasotako baldintzetan. Kontratuaren aldaketaren balio ekonomikoa 36.399,53 eurokoa izango da BEZ kanpo.

2.- Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 143. artikulua aplikatuz, entzunaldia ematea kontratistari, bost egunez.

*Atendiendo al informe de Secretaría y de conformidad con la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, el pleno por 10 (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN, Geroa Bai) votos a favor y una (Baztango Independienteak/Independientes de Baztan) abstención acuerda:*

*1.- Iniciar expediente de modificación del contrato de REFORMA, MEJORA Y ADAPTACIÓN DE LA RESIDENCIA FCO JOAQUIN IRIARTE DE ELIZONDO (FASE 1) en los términos recogidos por el documento de la dirección de obra de abril de 2024, modificación del proyecto debida al punto de conexión de acometida eléctrica propuesto por IBERDROLA. El importe de la modificación del contrato es de 36.399,53 euros IVA excluido.*

*2.- En aplicación del artículo 143 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos dar audiencia al contratista por plazo de cinco días.*

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 08:42an. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 08:42 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*EL ALCALDE*

*IDAZKARIA*
*EL SECRETARIO*